

LITERATURA

OINATIKO ARRAZOLA ETXeko MANUSKRITOAK

1976-II-6

Jerardo Elortza

Orain dela hilabete batzuk, Oinatiko Olabarrieta hauzoko Arrazola etxean aurkitzen diren manuskrito batzuren fotokopiak eraman genizkion Aita Villasanteri *Euskaltzaindiaren* liburutegirako. Orduan, izkribu hauei buruzko lantxo bat eskatu zidan euskaltzainburuak, eta ondorengo txosten hau duzue nik egin ahal izan dudana.

1. Izkribuen kondaira laburra

Manuskrito hauk ez ziren, ikusiko dugunez, erabat ezezagunak. Lehendabizi, Aita Jose Adriano Lizarralde frantziskotarra konturatu zen, duela berrogei ta hamar bat urte, idatzion balioaz. Arrazola etxera sarritan joaten omen zen, eta, hango liburu eta paper zaharrak arakatzen ziharduela, inprimatu gabeko bi liburu hauk aurkitu zituen. Errepublikak (1)

(1): Errectore-aren manuskritoa Donostian zegoela, Zabaletak Fausto Arozeari idatzitako (1954-VI-21an) eskutitz baten zatirik interesgarrienak jartzen ditut, izkribu hauei buruzko gauza batzuk argitzen laguntzen dutelako:

“Como indicaban en mi artículo de la revista OÑATE de 1951, pertenece el manuscrito al médico D. Luis Arrazola, domiciliado en la casa llamada también “ARRAZOLA” del barrio de Olabarrieta de esta villa; pero quisiera que V. me lo devolviera a mí, el día que se proponga hacerlo, ya que no he terminado aun de recoger todos los apuntes consiguientes a una completa revisión de su texto, cuyo estudio comencé en 1934 (Zabaletaren paper zaharren artean ez dugu oso baliagarri izan dakiguken horrelako lanik aurkitu). En aquella época se lo presté al finado P. Olabide, que se hallaba en Aranzazu como refugiado, a consecuencia de la disolución de la Compañía... Unos años antes el finado P. Lizarralde me extrajo del

garaian Leonardo Zabaleta apaizaren eskuetara pasatu eta bere ardurapean urte askotan egon ziren. Oinatiko apaiz honek gerra aurretxoan Arantzazun zegoen Aita Olabideri utzi zion liburu horietako bat. Gerratea igaro ondoren, berriz, Donostia aldera abiatu zitzaigun Olabidek erabilitako hau. Mitxelenak garai hartan ezagutuko zuen, bere *Fonética Histórica Vasca*-n maiz aipatzen bait du. Zabaet hil zenean, manuskritoen jabeak, Luis Arrazola jaunak, biak bereganatu egin zituen, eta, harrez gero, gutitan atera dira Arrazolako etxetik. Aita Villasantek ere, epe labur batez, bat eskuratu ahal izan zuen, baina ia berehala itzuli behar izan zion jabea-ri.

Euskarazaleentzat —eta oinatiarrontzat bereiziki— hain interesgarriak izan zitezkeen idaztiok betiko gal ez zitezen, Oinatiko Liburutegiko Batzordeak fotokopia batzuk ateratzea erabaki zuen. Horrela ba, Arrazola jaunari baimena eskaturik, orain *Euskaltzaindiko*, Arantzazuko eta Oinatiko liburutegian dauden kopiak atera ziren ihaz.

2. Xehetasun batzuk

A) Izena, neurria, etab.

a) "Errectore Jaun baten instruccinuac ezconduric vizi dan Adisquide batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme".

478 orrialde (239 folio) eta lau orri hutsik. 140 × 220 mm.

archivo del mismo convento una escritura de 1781, en la que aparecía la firma del P. Guardián de la época Fr. Pedro de Arrazola, por si concordaba con la de "Pedro Arrazola" que figura en el manuscrito y que acaso pudiera ser la de su autor; pero no resultaron iguales. Es pues de autor desconocido, si bien de su texto se deduce, que fue escrito a fines del siglo XVIII, puesto que habla de la revolución francesa, como de suceso reciente. Poseo otro volumen manuscrito calcado del anterior (hain berdinak ez direla ikusi dugu), al parecer de época algo posterior, de buena letra, bien encuadernado y conservado, pero de un vascuence menos trabajado y de menor pureza de lenguaje. Varía el título, que es literalmente: "OSABA BATEN INSTRUCCINUAC BERE ILLOBA EZCONDU ETA NECAZARI BATENTZAT BERE ETA BERE FAMILIAREN GOBIERNU ONERACO JAUNGOICUAREN LEGE SANTUUAZ CONFORME" (título hau ez dago hitzez hitz aldatuta). Es del mismo propietario y siempre han estado juntos en su biblioteca".

Tinta marroiaz txukun idatzirik.

Larruzko azalez hornituta.

Marrazkirik gabe.

Egoera onean.

Hemendik aurrera "Errectore" (E) deituko diot.

b) "Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme".

440 orrialde (220 folio) eta bi orri hutsik.

140 × 220 mm.

Tinta marroiaz idatzirik; letra berdina du, baina handiagoa.

Larruzko azalez hornituta.

Marrazkirik gabe.

Egoera onean.

Hemendik aurrera "Osaba" (O) deituko dut.

B) *Aurkibideak*

Errectorearenak ez dakar aurkibiderik eta neuk atera behar izan diot; besteak, berriz, ba dakar bere "Tablia". Orri-ka numeratuta daudenez gero, orriaren lehen aldeari "a" deituko diot, eta "b" bigarrenari.

a) *Errectore manuskritoaren aurkibidea*

<i>Jesús, María, eta Josef (Sarrera).....</i>	<i>1b</i>
<i>Vizi bedi Jesus.....</i>	<i>4a</i>
<i>Religinua</i>	<i>4a</i>
<i>Eliza Santa, Catolica, Apostolica, Erromacua</i>	<i>18b</i>
<i>Jesus Divinoc eracutsi euscun Sinistia.....</i>	<i>27a</i>
<i>Martirio santuba</i>	<i>42b</i>
<i>Eliza Santatic campora vizi dirianac</i>	<i>46b</i>
<i>Guizonaren azquen Fina</i>	<i>49b</i>
<i>Jesu Christo gure Jauna bitarteco bacarra, azquen Fin santu au anchiquetaco</i>	<i>55b</i>

<i>Animaco Etsaiac: Diabruba</i>	57b
<i>Orazinua</i>	58b
<i>Orazino Mentala</i>	70b
<i>Humildadia</i>	76b
<i>Jaungoicoaren aurrian ibiltia</i>	92b
<i>Munduba</i>	97a
<i>Sacramentu Santubac</i>	122a
<i>Sacramentu Bautismocua</i>	129a
<i>Sacramentu santu Penitenziacua</i>	133a
<i>Indulgenziac</i>	184b
<i>Meza Santuco Sacrificioa, eta Sacramentu</i>	
<i>Comuniocua</i>	189b
<i>Matrimonio santuco Sacramentuba</i>	218a

Liburu hau amaitzeke dagoela dirudi, besteak bukaeran daduzkan azken hitzak ez bait dakartza.

b) Osaba manuskritoaren aurkibidea

<i>Jesus, Maria, eta Josef (Sarrera)</i>	1a
<i>Vizi bedi Jesus</i>	2b
<i>Religinua</i>	3a
<i>Guizonaren azquen Fina</i>	46a
<i>Animaco iru Etsaiac</i>	54a
<i>Diabruba</i>	54b
<i>Oracinua</i>	55b
<i>Humildadia</i>	63b
<i>Munduba</i>	80a
<i>Araguia</i>	102a
<i>Aspereza</i>	106a
<i>Necazaritzaia</i>	109a
<i>Gurasuac</i>	127a
<i>Matrimonioa</i>	131a
<i>Progimuac</i>	179a
<i>Mingaia</i>	197a
<i>Curutzia</i>	202b
<i>Fina (Azkena)</i>	219b
<i>Matrimonioaren gañeco Gueigarria</i>	219b

Liburu biek antzeko gaiak darabiltzate, baina hedadura, taxukera eta idazkera desberdinez.

C) Noiz idatziak izan ote ziren

Argitaratu ez zirenez gero, manuskrito hauek ez dute idatzi zireneko urterik ipintzen. Hori jakiteko, testo barruan dauden datuez baliatu behar. Bi gauza dira, batez ere, hontan lagun diezaguketenak. Batetik, Frantziako Iraultza gertakizun hurbil bat bezala agertzen da manuskrito bietan (E. 41a eta O. 29/30). Beraz, honi jarraiturik, XVIII. mendearen ondarrekoak edo XIX.aren hasierakoak izanen lirateke. Frantziako gertakizunekin batera Euskal Herriko matxinadak eta Espainiako gerrak eta nahasteak ere aipatzen dira. Joan zen mendearen hasierak —eta aurreko urte batzuk ere bai— horrelako giro bat eduki zutenik ezin uka.

Bestetik, erromatarrek Jerusalem birrindu zutenekoa jar-tzen duenean, "judeguac" mila zazpirehun eta hanbat urte munduan zehar sakabanatuta dabilatzela dio Errectorearenak; besteak, ordea, mila zazpirehun hirurogei eta hainbat urte. Baina, noiztik kontatu behar diren urte horik ez du Osaba-renak garbi esaten: Jesukristoren heriotzaz gero ala Jerusalem desaginduta gero (E. 47a, O. 21b-22a).

Bestalde, Inkisizioa oraindik tente dagoela ageri da (E. 39a, O. 32b). Beraz lehen esan dudan inguru horretan idatziko ziren. Osaba-rena, beharbada, geroxeagokoa dugu. Judutarren kontu horrek, idazkera desberdinak eta beste xehetasun batzuk hori pentsarazten didate. Zabaletak ere susmo horixe zeukan (1). Dena den, asko jota ere, 1820. inguruan mugatuko nuke Osaba-rena, eta urte batzu lehenago bestea.

Ba dira behar den bezala konprobatu ez ditudan beste datu batzu ere. Horik ondo ezagutzen direnean, ene ustez, zehatzago jakin ahal izanen da izkribu hauen urte-muga.

3. Egileari buruz

Arazo honetaz ere ez dakigu ba gehiegi. Errectore manuskritoaren hasierako orrialdean hau dator: "Arrazola Eche/O-labarrieta/Oñate/Pedro de Arrazola". Oinatiko Arrazola base-

rria aspaldidanik izan da maiorazko eta jauntxoan etxea (2). Bertako semeren batek idatzi ote zituen eskuizkribuok? Ez litzateke harrigarri izanen. Autorea, betalde, frailea edo apaiza zela garbi dago: tituloak eta barruko beste pasadizu batzuk hori adierazten digute. Sasoi hartako Arantzazuko goardiana Arrazola bat zen, baina ez Pedro —Zabaletak dioen bezala (1)— Francisco baizik. Gainera, manuskrito bien letra berdina izan arren, ez da lehen orrialdeko Pedro de Arrazola horrena. Pedro hau geroke jaberren bat ala delako nekazari edo iloba ote dugu ba? Hori ere daitekeena da, egilea pasarte askotan benetako osaba legeaz azaltzen bait da (0.161b). Egilearen ize-na jakiteko, orduko Arrazolatarren artean aztertu beharko litzateke.

Darabilen euskarari bagagozkio, aurrerago ikusiko dugunez, oinatiarra edo Oinatin luzaro bizi izandakoa zela pentsa dezakegu. Istudioak Oinatin egin zituela, berak aitortzen digu; non, ordea? Unibertsitatean ala Arantzazun? Autorearen arazo hau ere, sakon aztertuz gero, erabaki daitekeela pentsatzen dut.

4. Manuskritoen hizkuntzaz

Hauxe dugu, agian, punturik interesgarrienetako bat eta alde askotatik azter dezakeguna: euskalkia, aditzak, joskera, esaerak, etab. Ezagugarri nabariak azaltzen ahaleginduko natzaizue.

A) *Euskalkia*

Egilea oinatiarra edo Oinatin luzaro bizi izandakoa dela esan dut arestian. Horren frogarik bortitzena izkribu hauetan erabiltzen den euskalkia da, noski. Gaur egunean Oinati aldean mintzatzen den euskara eta manuskritoetakoa ez dira berdin berdinak, jakina, idazti gehienetan bezala, forma literarioak agertzen direlako manuskrito hauetan ere. Bestalde, ordutik

((2): Ikus, Félix M^a Ugarte: "Papeles, libros... y demás trastos viejos", Oinatikoliburutegiko Agerkaia, 5. zenbakia, 1974.eko Abendua, 3. orrialdean.

hona txantxikuarren "berbetia" aldatu, bereizitu eta, gauza askotan, pobretu egin dela, ausardia handiegirik gabe, pentsa dezakegu.

Berdintasunak ikustekotan, lehenik aditzera jo beharko dugu, hori izaten bait da gehienetan euskalki baten ezagugarri mugatzailea. Egun, oinatarrok darabilgun aditza Bizkaikoaren antzekoa da; baina ba dira desberdintasun nabarmenak, gipuzkeraren kut-suz batzutan edo bertako aintzinako bitxikeriak dire-lako bestetan. Oinati Gipuzkoa eta Bizkaiko euskal-kien arteko muga-mugan eta mendiz Arabatik oso hurbil dagoela ez dugu ahaztu behar.

Manuskritoetan azaltzen den aditza funtsean bizkaiera klasikoa da. Haatik, Oinatiko forma bereziak ia beti agertzen dira. Adibidez: pluraleko forma batzuk "-i" bukaeraz osatzen dira oinatieraz. Arrazolako liburu horietan horrelako erak ba ditugu: *zarai, daucai, eucain, baleucai*, etab.

Aditzaren izen-formak konela osatzen dira gure herrian:

- a) Partizipioan -n edo -i bukaera duten aditzek: -ten, -teko, etab.
- b) Partizipioan -tu edo -du bukaera duten aditzek: -ketan, -ketako, etab.
- c) Aurrekoak bi silabadunak badira (sartu, kendu): -tzen, -tzeko, etab.
- d) Bukaera -au baldin badute (errezau, pentsau), -itteko, -itten eta antzekoak. Azkenengo hauk gehienetan erdaratik datozen hitzak izaten dira.

Eskuizkribuetan honela daude:

- a) *eguiten, ecarten, esaten, erantzuten, ausiten, esquin-ten, ereiten, eresten, jaguiten, itzulten, ebaten*, etab.
- b) *billaquetan, gertaquetan, asperquetan, aguinquetan, parcaquetan, gueiquetan, jarraiquetan, erreguquetan, escaquetan, aiquetan*, eta *anchiquetaco, sinisquetia, aitaquetia, bialquetaco*...
- c) *sartzen, artzen, artzeia, quentzeia, sartzaca, quentza-ca*, etab.
- d) *amaitan, salvaitan, arrapaitan, honraitan, tentaitan, adoraitan, errezaitan*, eta beste asko.

Azken forma hau piska bat aldatu dela, ikus ezakegu.

Gaur egunean erabiltzen ez den bosgarren forma bat ere ba dator: -e letraz bukatzen diren aditzak honelako formak hartzen dituzte: *betetan, gordetan, gordetaco*, etab.

Aditzaz gain beste Oinatiko kutsu batzuk ere aipa daitezke:

- a) Bokal luzeak edo bikoitzak: *aazturic, banaan, beeratu, edaaten, jaachi, maats, leen, mee, quee*, eta beste batzuk.
- b) -dui atzizkia -di erabili beharrean, landare mueta baten ugaritasuna adierazteko: *arantza dui, nar dui*, etab.
- c) -a organikoa: *arbola, eliza, eriotza, familia, gaiztaqueria, gauza, jaquinduria, naguiqueria, premina, vizitza*, etab.
- d) -e letraz bukatzen diren hitz batzuk: *anae, arrae, campae, due*. Azkena ezik, beste hirurak horrela esaten dira oraindik Oinatin.
- e) Oinati eta inguruetakoa hiztegia asko darabilte idazti biek. Hitz batzuk, kaletarrontzat ezezagunak direnek, Aita Izagirrerren hiztegian begiratuaz (3), baserritarren artean bizirik dirautela, konturatu naiz. Hona hemen adibide batzuk:

albeni (hebra de hilo)

aisuari (Iz.: jangauzia)

anchitu (arrapatu, lortu)

batiatu (bataiatu; orain ez da horrela esaten, baina *batiuak* geratu da)

beguitanzino (Iz.: *begitantziñua eiñ*: figurarse que existe lo que no existe)

chori malo (espantapájaros, máscara de carnaval)

chiquin (txiki)

chipitu (despedazar)

edarra (herrada)

illunquera (arratsa)

emun (emon, eman)

errime (Azk. B-mond: firme, robusto, fuerte)

(3): "El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes", Fr. Cándido Izaguirre O.F.M., A. Villasantek prestatutako argitalpena, Anuario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", tomo IV, 1970, Donostia.

erru (Iz.: *erru onekua, erru txarrekoa*: persona de buena o mala herencia. Baita ere: marca o señal)

etzin (etzan)

guizur (gezur, guzur)

lotsari (Iz.: *lotzáari ederra artu dau*: ha pasado buena vergüenza)

puzunia (Iz.: *pusúniau*: enconarse)

susuma (Iz.: *susúmia eemun*: causar asco, repugnancia)

urrin (urrun, urruti)

ur amilla (Iz.: *or etorri da uramilla*: aguas grandes, riada)

- f) -n letraz amaitzen diren hitzak. Orain ez dira erabiltzen, baina oraintsu arte bai, dirudienez. Izagirrek *eskribaun* ba dakar. Manuskritoetan *christaun* (askotan), *eskribaun* eta *billaun* ageri dira.

B) Morfologiazko beste gauza aipagarri batzuk

- a) -oso atzizkia. Beste leku batzuetan erabili arren ez dira hainbeste entzuten honelako hitzak: baquioso, eroso, erremañuso (Azk.: *erremañño*, B-mond: defecto físico), nekoso, etab.

- b) -ro atzizkia: *andiro, dongaro, ederquiro, gogorquiro*, etab.

- c) Aditzean: ba dira hemen ere hain arruntak ez diren formak: *albadedi, naguiala, bequio, badeiozube, baleutsai, daiquedazu, neiquio, zeusquien, leusquezun*, etab.

Sintetiko-erak ugari azaltzen dira: *dacuscu, geucan, bazeuca, balequie, dacarde, eroian, diñot, dirau, darabiltzu, garabilgu, deriztezu, zeritzon, baguegonzen, baletoz, nuatza, nebillela, darraiquio, dirudie, dariela, derautsan* eta beste asko. Oro har, gaur Oinatin darabilgun aditza baino zabalagoa eta aberatsagoa da bi liburu hauetakoa.

- d) Bizkaia aldeko euskalki baterako, gaur behintzat, arrotzak diren hitzak eta erak ere ba ditugu: *aide, agitz, asipena, asabac, egunoro, eni* (neri), *guizarte, ichascor, irago, sierpe* (suge), *urlia eta berendia* eta horrelakoak.

- e) Erakusle bitxi bat: *onerian, orrerian, arerian* honelako, horrelako, halako erakusleen orde ez dut nik beste inon ikusi. Erakusle mueta hori liburu bietan ugari dago; lehengo hirurak eta beste ondorengo hauk: *oneriaren, onerianac, onerianentzat* liburuetako orrialde askotan sakabanaturik daude.

C) *Idaztankeraz*

Bere garaiko beste idazle batzuei bezala, honi ere erdal joskera nabari diezaiokegu. Batzuetan gaztelaniaren eta latinen kutsua nabarmena da. Beste batzuetan, aldiz, esaldi jatorrak eta borobilak botatzen ditu. Esaldi luzeak egiteko trebetasunik ez zaio falta, hartarako izenorde erlatiboaz maiz baliatzen delarik (zein, zeñetan, nun, etab.). Bere helburua didaktikoa denez gero, ideiak behin eta berriz errepikatzen ditu, noizean behin irakurtzeko astuntxo bilakatzen bada ere. Adierazi nahi duena garbi gera dadin, antzeko hitzaketa adibideak pilatzen ditu bata bestearen atzetik. Irakurlea oso ikasia ez dela konturatuta haren pentsamoldera egokitzen badaki, esaerak, nekazaritzako ejenpluak eta urreko gertakizunak erabiliaz. Garai hartako euskal literaturako beste apaiz eta fraile batzuen antzera, bere xede nagusia dotrina irakastera zuzentzen du, eta horregatik edertasunaren atzetik baino argitasun bila ari dela esango nuke. Halere, idaztankerari begiratzen baldin badiogu, izkribu bien artean alde handia dago.

D) *Manuskrito bien arteko diferentziak*

Errectore-arena bestea baino garbiago eta txukunago idatzirik dagoela, erraz ikus daiteke. Horra adibide batzuk:

E. 4b.—“... autortu eutsan Adaneri escuvidia, Paraisoco fruta mueta guztietatic jaateco; bat bacarra ucatu eutsan, bere Leialtasuna gauza guichian ecusiric, Zeruco Gloriara andic jausoteco asmuagaz, eriotzaric, eta beste naibague-

O. 3b.—“... emun eutsan licencia, an egocen fruta mueta guztiaac jateco; bat bacarra ucatu eutsan, bere leialtasuna gauza guichian probauric Zeruco Gloriara andic jasoteco asmo, fin eta deseogaz, eriotzaric, eta beste naibaguetasunic bate-

tasunic batere irago bagaric ala berac, nola, beragandic sortuco zirian, ondo-rengo guztiac: baita ere esan eutsan, jaaten beeben, ucaquetan eutsan, fruta bacar artatic, illgo zala (auzan esatia) andic aurrera vizi iarco ebela Animaco eta Corputzeco eriotzaren bendian, eta, eriotza onec beragaz dacarren, naibaguetasun beticuen, eta Mundu onetaco beste naibaguetasun mueta guztien bendian''.

E. 6b.—''... eta berialatic artu eben asmua, desequinquetaco Guizonac Diabrubaren emvidiagaz bere burubari eguin eutsan calte madaricatu oneic; eta ala aiquetara emun eusten gure lenengo Guraso onei, bialduco ebela Zerutic beren Salvatzallia, zeñac etaraco zituban Diabrubaren bendetic, eta ideguico eusten beren desobedienciatic ichi eusten Zeruco atiac''.

re irago eta sufridu bagaric ala berac, nola beragandic sortuco zirian guztiac: baita ere notificau eutsan, sufridu biarco zitubala ala berac, nola bere Jatorri guztiac eriotza, eta dacuscun beste naibague, eta negar garri mueta guztiac, bardin descuidaitan bazan jaaten, ucatu eutsan, fruta bacar artatic''.

O. 5a.—''... eta berialatic determinau eben desequinquetia, Diabrubac Guizonagan eguin zituban obra, eta calte madaricatu oneic; eta ala ofrecidu eusten gure lenengo Gurasuai, bialquetia Zerutic beren Salvatzallia, zeñac librauco zituban Diabrubaren esclavitudetic, eta ideguico eusten, beren desoedienciatic ichi eusten, Zeruco atiac''.

Honelako zati berdintsuak gutitan agertzen dira. Askotan, ba, zein den jatorragoa igartzea ez da erraza.

⁵5. Garai hartako pentsamolde eta giroaren lekuko

Nahiz eta liburuen gaia erlijiozkoa izan, lantzean behin beste sail batzuk, zeharka ez bada ere, urratzen dira. Han hemenka ematen dizkiguten berri laburrak bildu eta taxutuko

balira, joan zen mendearen hasierako giroa hobeki ulertuko litzateke. Orain ez dut giro horren azterketa zehatz bat egiteko asmorik, aipagarrienak jasotzeko besterik baino.

Frantziako Iraultzaren aldi nahasi harek makina bat kezka bide emanen zien elizgizonei. Hauek alde guztietatik etsaiz inguratuta ikusten zituzten beren buruak. Euskal Herrian bertan izandako matxinada eta nahasmenduak gauza gaiztoztat jotzen zituzten (4). Gizarteko egiturak nolabait aldatu nahiean zetorren jokera haren aurka jartzen da izkribu hauen egilea. Ez zaio inolako aurrerapen, berrikuntza eta aldakuntzarik gustatzen; nahiago luke, gauzak daudenetan geldituko balira, hartarako Inkisizioaren metodo ikaragarriak erabili beharko badira ere (5).

Horregatik, bere ilobari ematen dizkion aholkuetan, bizi-modu latz eta hestu bat proposatzen eta gomendatzen dio: kanpotik datozen ohitura, janari, jantzi eta modak animaren osasunerako kaltegarri (6) direnez, zeharo baztertu behar ditu, bere burua ondatu nahi ez baldin badu. Liburueta jakinduria bera ere mesfidagarria da baserritar batentzat. Beraz, nekazariari irakurtzen ikastea komeni arren, dotrina eta elizako liburuak erabiltzeko izanen da. Idazteak, berriz, ez du aparteko garrantziarik (7). Oinatik Unibertsitateko estudianteeek zeramaten bizimodu alai eta arduragabeaz ikaraturik, seguraski, baserritarren seme-alabek ikasketak egin ditzaten, ez du aurrerabide handirik ematen. Hala ta guztiz ere, semeren batek ikasteari ekiten badio, gurasoak kontuz ibili beharko dira, galbidean eror ez dadin (8).

Herri xehearen sineskeriei eraso gogorrek egiten dizkie. "Gaizquin", "beguizco", "cutunguilla" eta bestelako supersztizino edo "sorguinderiac" indar handia zuten, dirudienez, baserriko jendearen artean, biziki jorratzen ditu eta (9). Arazo honi buruz adibide harrigarri eta bitxiak ipintzen ditu. Hartara, sail honetan eta beste batzuetan, orduko ohitura, eritzi, pentsamolde eta sinesteen lekuko eta ispilu ditugu Arrazolako manuskritoak. Gure historialariak orain arte ez

(4): Ik. Zati hautatuak, 14, E. 41a/b.

(5): Ik. Zati hautatuak, 15, O. 31b-32a.

(6): Ik. Zati hautatuak, 18, O. 174a/b-175a.

(7): Ik. Zati hautatuak, 16, O. 165b-166a.

(8): Ik. Zati hautatuak, 18, O. 174a/b-175a.

(9): Ik. Zati hautatuak, 19, E. 98/99.

dira euskarazko liburuez asko baliatu. Sarritan datuak hain urri ditugunez gero, liburu eta manuskrito zahar hauk astintzea komenigarri izanen litzaiguke. Izkribu hauek —eta garai-kide diren Añibarro, Astarloa, Mogel, Frai Bartolome, Agirre eta abarrenek— argibide baliotsuak eskura diezazkigukete. Esate baterako, lehen ezarri ditugunetatik at, ba dira hemen bi aipamen interesgarri Nafarroaz (10).

Beste puntu batzuk ere azter zitezkeen (iturriak, garaiko idazleekin konparaketa, ortografia, etab.), baina gaurkoz aski izanen dugula, uste dut. Bukatzeko, liburu bietatik aukeratu-tako irakurpuska batzuk datoz. Idazten hain guti erabili izan den euskalki baten bereizitasunak ezagutzen lagun dakizuela.

Zati hautatu batzuk

E. 1a.- “Beti, neure biotzian josiric zaucadan Aisquidia, dutsudan amorio eguiazcuac obligaitan nau, zuri ondo vizi izateco aviso batzubec emutera; eta, Jaungoicuac emunic zuri aimbeste capacidade, uste dot, artuco dituzula aviso oneic gogo eta vorondate onagaz, zugana amorioz betericaco biotz batetic urtenac dirian leguez; ez dot uste, ofendiduco zariala iñolaco moduz aviso oneicatic; zergatic, capacidade onecua bazara ere, eziñ ain ondo ezagutu zeique zeure aciertubac eta uts eguitiac, nola zure oneraco eta gobiernuraco Jaungoicuac bere providencia santubagaz ifiñi izan dituban Christaun aic, zeñetatic bat zeure Gurasuacaz batera, eta aicaz ostian uste dot, naizala neu.

Baduaza nire egunac; eta ni illagatic ere, vizico naitzatzu liburu onetan, emuten deutsudala ala zeuri nola zeure Jatorriai avisu eta conseju santu oneic, zeñac milla bider obeto eracutsico deutsube Guizarteco barri, España guztia zeuc gulleriaz eta curiosidadez inguratuta baño”.

E. 27a.- “Itzain batec bere Idiacaz cargaren bat burdian nunaibatera eruan gura dabenian, lenengo guertaquetan dau burzilla, ondoren eraazten deutsa bere punta bietan chirricac, gañian ifinten deutsa burcama zabala, ezarten deutsa deritzon carguia, Idac uztarrian lotzen ditu, eta onela carguia

(10): Ik. Zati hautatuak, 17, O. 170a, E. 112a.

eruan eraiten deuste, bera idi aurreco dala: orobat Jaungoicucac gugaz eguiten dau, salvazinoco videtic eruan biar dogun cargaia eruan eraiteco..."

E. 41a/b.- "Ecusi dituzu, nire Aisquidia, Machinada negar garrizco oneic Franziacono Erreinu guztian, España ere bai... ateetan Vitorian eta Vilvaon: beñere bada ez zaite nastu onelaco Machinadetan, besteric onetaraco puztubagaz, edo laguntasuna eguinagaz; eta bai jaquingo bazeu besteren batzuben asmua Machino jaguiteco, azpitic emun biarco dozu contu demporaz, gaitza eragotzi daiquianari, eta contu emute au eguin biarco dozu zeure Confesore, Errectore edo beste Guizon juiziosoren baten bitartez; bacoitac bada bere aldetic dana eguiten ez badau, su oneriana itzunguiteco, indarra artu baizen leenago, eguiten dau pecatu".

O. 31b-32a.- "Ordia, eta Lujuriosuac, Icazquinac, Atsuac, Caldara guñac, eta Capadoriac gaurco egunian trataitan ditube Misterio altu oneic euben Lagun batzuben asuntuac baliran leguez; onelacuacandic igues eguizu beti, nere Illoba; eta Eliza Ama Santaren siniste eta doctrina bagueco Personaren bat iñoiz etorric baliz zeure Echera, portau zaite onelacuagaz, San Juan Evangelista eta Apostolubac contuban ifinten gaituben moduban, diño bada: bardin badator zubecana norbait, eta (eracutsi deutesubegun) doctrina au ez badacar, ez eguizobe emun entradaric Echera; eta ez eguizobe ere eguin Diosalic.

España ere pecatu mortalaren azpian dago bat obligauric, emutera contu aimbat lasterren Inquisicinoco Tribunale santura, entzun ezquero edo jaquin ezquero, Personaren batec esan edo eguin dabela Fede santuco Misterioren baten contra gauzaren bat: Ho! eta zeinbat Zapo eta Suga dagozen orain beren zulueta sarturic, atrevitan ez diriala ezertara Tribunale santu onen vildurrez! Jaungoicucac bada conservau daguiala aimbat luzaruen:, cergatic Murralla au quendu ezquero, ascoren Fediac eta Salvacinuac peligrauco peligrauco (sic) leuquie".

E. 64a.- "Esan zeiquet orain, Aisquidia: Jauna, oneic onela diriala, nic escatu neiquio aren Divina Magestadiari, beinguan eguin naguiala Santu andi bat; bada au, aguirian dago,

dala gauza ona nire Animiaren salvazinoraco: ez inolaco moduz, Aisquidia, orerian escavideric, erantzuten deutsut; zergatic ori escaquetia izango lizateque, Jaungoicua tentaitia, escatubagaz, bere grazia santubaren ordena sobrenaturalian gu salvaitaco daucan, videtic urtenic, zugaz eguin daguian batere premina bagueco milagro bat, escatuco bazeutza leguez, emun daguizula zeure Necazaritzaco ofizioan urte on bat eta aberatsa lurreco frutubetan, zeu batere necatu bagaric, Lurra maniatan, ereiten, jorraquetan, eta premina dirian beste languei mueta guztietan..."

O. 148b.- "...duda bague Buertia andiagua da Erlia baño, Erlambua ere andiagua da, eta Erlabiua andiagua eta ederragua da Erlia baño ¿eta Erliac bere ezebereztasun eta chiquitasun guztiagaz emun oi daben frutu eder eta gozuaren compacinuan, zer frutu emuten daube Buetra, Erlambo, eta Erlabio ooneic (sic) beren galantasun eta anditasun gueiagogaz?"

O. 148b.-149a.- "Zeuben Umien Bautizuetan ez eguizube urten zeuben Gurasuen reglatic campora, jo eraguiten dituzubela Organuac, edo bota eraguiten dituzubela Boluac..."

O. 158a.- "Ea bada, nire Illoba, zubec Senar eta Emazte, emuten dozubela puntu onen gañian zeuben Familiaran modetracinoco egempluba, apartau eguizube zeuben Umeen Ezpanetatic, bañan chiquin chiquitanic, Ardaoa eta Ardaoaren Senide maitiac dirian, Pipia eta Zigarrua, eta euqui eguizube cuidadu andia, probau ez daguian Ardao eta beste Licoreric, amazortzi edo ogeu urte cumplidu arteraño..."

O. 162b.- "...Aizpac Aizpacaz eta Anaiac Anaiacaz ere izango lituquie milla bat beren arteco llaneza indezentiac.

Nescatillac gueiago dagoza esponiduric beren arazotasun gueiago eta erropa sueltua mediante, edozein modutan dabiltzela batez ere ezcutubetan: puntu au nola dan aña delicaduba, zeñian Beguiac idetia Umiai dan vizioa viztzeia, Gurasuen Prudenciatic atajau biar ditu inconveniente oneic beren Umee-tan guztiz urrinetic, ezercho eurai aiquetara emun bagaric milla Legua videtic".

O 165b-166a.- "Umiac ala Semiatic nola Alabac Oguia alperric jaten dauben bitartian chiquitanic bialdu biarco dituzube

Escolara, iracurten ondo icasi arteraño (Semiac Muticuen Errico Escolara, eta Alabac, zeuroc Echian ez eracutsi enian, Maestriaren Escolara, eta ez iñolaco pretestoz beste Lecutara); onela Echian emungo deustube baquia, eta jaten dauben, Oguia izango da berentzat zerbait provechosua: bai, guztiai emun biarco deustezube Escolac, iracurten icasi arteraño, eta au ondo, ondo, baña guztiz ondo; eta iracurten icasi ezquero, beriala erretirau biarco dituzube Echera ala Semiac nola Alabac eta ifini biarco dituzube bertatic Necazaritzaco Oficioan, Estudioai jarraitu biarco deustenacaz osteriango, guztia... Ondo iracurten icasi ezquero, eta Echera erretirauric erscribitan ifinitzaca, bertatic Ume bacoitzari entregauco detsazube bere Doctrinaco Eusquerezco Cartilla, eta icasi eraguingo deustezube ondo Doctrina guztia, Aita Astetec eracutsiric itzi eben, moduban, llana bat edo beste icasi eraguiten deutezubela Eguzari egun bacoitzian, eta oneitan egercitau ere eraguin biar deustezube beren iracurtia, ordeitu eta aztu ez dequien, eta jaquin daguien sentidubagaz iracurten Eusque-razo Liburu devotoren batzube".

O. 169a/b.- "Ez dozube ere bialdu biarco onelaco Semia edo Semien faltan Alabia iñolaco pretestuz Erritic edo Echetic campora Erderaz edo Guizarteco barri icastera, edo (subec esaten dozuben leguez) Habilidadiac artzera; au izan oi da zubelacuen artian Diabrubaren engañu manifestu bat... Españan iñoizco demporan sortuco baliz negar garrizco libertadia, bacoitzac gura daben Legue edo Religino moduba gordetaco, eragotzi biarco deustezube zeuroen Umiac (posible dozuen guztia) acomodaitia, eguiac Christau Catholico Apostolico Erromanuac ez dirian Personacaz, eta euqui biarco dozube cuidadu guztiz andia, Echian sartzen dituzuben Servitzari eta Jornaleruacaz, izan ez ditezen Eregiac, edo, Christaunac izanagatic, viziosuac, galdu ez dequizuben onein videzuben Umiac, eta biarbada zeuroc ere galdu ez zaitezten".

O. 170a.- "Nafarruan Bastango Partidan iñorc ez dauca lizenziaric, juntaitaco bere Bazter eta Echiari beste Echeric, ez da ere estatubat Lur Partida barruban ez ezcontzaz, eta ez beste edozein Tituloz; eta entzueria daucadanez, Eche Jaunac iñun obeto vizi ez dira an baño: cuidadu bada, nire Illoba, zure Familiar guertatu ez dedin, Echalde bat bacarra eucanian ondo iragotia, bi daucanian ez aiñ ondo, eta guztiz gaiz-

qui iru edo lau Echalden Jabe izatera etorten bada, egunoro esperienciak eracusten deuscun leguez”.

E. 112a.- “Nafarruaco Erreinuban dago, Aisquidia, Roncal deritzon, Valle bat; da laburra emuten dituban frutubetan. Personak vizi izateko baño, Ganau lecu obiaguac dira Valle onetaco Erriac eta Bazterrac: emengo Gentiac daucai Oial Fabrica bat, non ioten dituben bertaco Ganauben uliac Capuchinuen habitubaren coloreco Oial batzubec, baña arguiago edo sarjago ioac; eta daucai ifinita Leguia, Abade, Religioso eta Religosacaz ostiango beste guztiac ala Guizacumiac nola Emacumiac ala Chiquinac nola Andiac ala Pobriac nola Aberatsac jantzi ditezela bacarric Oial mueta onegaz eta ez beste-gaz; eta aiañ gogorquiro gordetan daube Legue au, zeinda, campotic Valle artara naiz dala aldaeraz, naiz dala ezcontzaz duazen, guztiai gorde eraguiten deustei Legue au gura eta gura ez; eta bestela bialquetan daube etorri zan videtic, izanagatic ere Emacume aberats, buru iritzicoa, eta modara jantziten oituricaco bat; ala vizi dira Jente oneic beti jantzi modu bategaz, eta beti modara”.

O. 174a/b-175a.- “Emun biarco deustezube Estudioac aimbat Semeric guichienai, baña Necazaritzaia aimbat Semeric gueienai; euracaz obeto eta nasaiago erabilico dozube zeuben Labrantzaia, emen Echalderic ascotan ecusten dogun leguez; eta, eurai Estudioac emuten gastauaco zeuquienagaz, eta Mirabiac eta Jornaleruac jango leusquezubenagaz, acomedauco zituquie decencia onian Necazaritzatic: ezin bada emun zeiquie zeuben Umiai Necazaritzaia baño destino obia-goric.

Estudioac edo Soldautzaia jarraiquetan deutsuben Semiacaz Ho! eta zein cuidadu andia euqui biarco dozuben, galdu ez ditezzen, eta, beren Lagunai Echera vidia emunic, galdu ez deguizuben Echeco Emacume guztiac, zeuroen Alabac a(u)-rrenengo diriala, eta orobat dituzuben beste Seme guztiac beren egemplu donga, Alperqueria, eta vizio mueta guztiac mediante; bada Estudiantien eta Soldaduben Queripeiac bacarric zabalquetan dau Eche inguruban, sufridu ezin lei-quian lezco, Tufo guztiz atsa...

Gurasuac batez ere zuben Oficiocuac ifini oi ditube beren Umiaac Estudioetan, Fraile edo Abade izango dirian, ustian;

artzen deuste Ume oneic beren Estudio andiac, edo (obeto esatiarren) Estudio andien pretestuagaz Asto andi batzubec eguinic, emuten dira Alperqueriara eta vizio mueta guztietara; beren Conseju eta egemplu dongacaz corrompitan ditube Errico Gazte inozentiac; eta onela eguingo dirian gara eguinic, eta daquie zer eguin; Fraile izatia gura ez daube, eta, Abade izateco, batetic Capellaniaric edo Beneficioric aguri ez da, eta bestetic Oficio altu eta santu onetaraco Alperqueriari eta vizioai aficionauric dagoza, Abade eguinic ere aldapa andia daucaila, onac izateco.

Ha! nire Illoba biotzecua, Frailien eta Abadien plazac gueitubagaz baño guchitubagaz juateco presenteco demporac obiaguaz dira ascuen iritzian, baita ere obiaguac, izango dirian, Frailien eta Abadien suertia edo Mundu onetaco vizi moduba estutubagaz, nasaitubagaz juateco baño; eta gueroco dempora obiaguen materia onetaraco traza guchi dago... Semiace jarraitu gura baditu berte Estudioac Erritic campora, instante artan bertan, zeñian manifestaitan deustuben artaraco pretensinua, ifini biarco dozube Necazaritzan, batere beragaz disputan jardun bagaric”.

E. 98/99.- “...¿eta nora guaza Odei demporaco guizur sinisqueta oneicaz, bardin Odei aserriac ecusi oi dirien alderen batetic aurquiquetan bada, iñorc ondarric ez dequion, Leze andiren bat, nire gazte demporan Oñatin Estudioetan nebillela, entzun oi neben leguez Gaiztazuluaren izena daucan Leze bategatic? entzuten neben bada, Leze onetan Diabrubic vizi diriala, sartu eta urten ibiltan diriala batez ere Odei aserria daguanian, urlia Arzainegaz eta berendiagaz au guertatu zana eta bestia, eta beste onelaco milla bat Atso ipuiñ Ume artian ere dempora irago garri esaten Christaun batec esaten lotsatu biar leuquiana... bardin Atso zarquinen bat eta arpegui zatarrecoa esquian badabil, beriala dau bizcarrian, gaitz guztiaeren Eguilla, Sorguina, eta Gaizquina izatia; eta Errian ots au banaturic batzubec guztiz gaizqui eta gogorquiro artzen daube beren Echeetan Esqueco au, eta beste batzubec (eta dira gueienac) emuten deustai, daben, izen donguiagatic bacarric eta Jaungoicoari beguiratu bagaric, daucaina eta ez daucaina, autortu eraguiten deustaila ez dirian milla bat gauza eta guizur ia bildurrez, ia asuari ugariaguac izango dituban pozian ¿nun dira onen ondoren Aquelarreco barriac...?

Aurren bat, edo guei anditaco Ganau Guel ederren bat goizetic gavera ondo ezen bategaz ecusten badaube, zer dauben ez daquiela; beriala esaten daube, Beguizcua daube; eta ondoren asiten dira, azterrenac etaraten, nor izan al ditequian, Beguizcua eguin deustena, jaquitiarren; eta laster, eta inguru asco emun bagaric, joten daube Beguiz eguin dabengaz; Aurra osasun onian eguala Sorguin izenecoren batec ecusi beben gaisotu aurrian, bera da, Aurra galdu deustena Beguizcuagaz; eta orobat Ganau Guela gaisotu aurrian ecustera jua dirianetatic batec ecusteko demporan esan ez beben: San Antonioc bedeincatu daguiala: bera eta ez besteric da, Beguiz eguin deustana; au onela jaquinic duaza, beguiz eguin deustela, uste daubenagana, garbitu eraguiten deustai bere escubac; eta guero edan eraguiten deuste ur au Aur edo Ganau Guel gaisuari, sendatu ditezen; eta (gueiagoda) ascoc beren Aurrai sartu oi deuste Colcuetan Icatzac, iñorc Beguiz calteric eguin ez deguien..."